


## Kodes - Kanpezu 12,8 Km



### **Kokapen geografikoa**

Kodesko mendatea Nafarroa eta Arabaren arteko muga naturala da. Aguilar de Codes, Genevilla eta Kanpezuko herriak banatzen ditu. Yoar eta Kostalera mendiak barne ditu 1200 mertrotan utziaz altuera, honek arabar mendialdea eta nafarroako ikuspegi zoragarriak oparitzen dizkigu.

Mendebaldetik buelta ematen duen ibilbidea aukeratu dugu. Gr 1 albo batera utzita, askoz gogorragoa bait da. Hegoaldetik iparraldera gurutzaten bait du mendatea desnibel handiak suertatuz. Genevillatik pasatuko gara gogortasun hori mugatuz.

### **Fauna eta landareria**

Mendatearen hegoaldean pinuak, garangorriak eta artederretak ikusiko ditugu gehien bat. Hegoaldeko partea klima mediterraneoaren influentzia nabarmena du, dibidsoria moduan jokatzen bait du.

Iparraldean, beraz, landareri eta klima kantabrikoa da nabarmen. Pinudiak eta pagadiak jaun ta jabe izanik.

Zeruan, basoaren gainean planeatuz, arrano beltzaren, zapelatzaren, sai zuriaren eta sai arrearen figura lirainak nabarmentzen dira, Kodesko gailurretako kareharrizko harkaitz ebaki dotoreetan atsedean hartu eta kumeak egiten dituztenak.

## **Datu historikoak**

Kodesko mendatea, abeltzaintza eta nekazaritza izan du bizimodu. Honen ondorioz, bide guzti hauek milaka aldiz ibiliak izan dira, abeltzainez eta merkatariez.

Puntu estrategikoa ere bada, Hemndik Iturrietako mendietara udan pasatzeko punturik onena bait da. Eta neguan nafarroako hegoaldearen epeltasunera bueltatzeko ere, leku paregabea.

Kanpezu eta Aguilar de Kodes konektatzen zituen bidea izan zen.

## **IBILBIDEA**

**Km 0.- AGUILAR DE CODES:** Herri napar honetik egunari hasiera emango diogu, ipar norabidea hartuza.

**Km 2.-** El portichuelo ezizenaz ezagututako mendi pasarte honetatik igaroko gara. Genevillaruntz bidaliko gaituen bidea jarraituko dugu.

**Km 6 – ERMITA DEL ENCINEDO:** Genevilla herritik gertu dagoen ermita honek, hamaiketakoa hastzeko toki aparta da. Eguraldi kaxkarra eginez gero ere gustora egotekoa.

**Km 9,2.-** Kanpezuko bidean jarraituko dugu, puntu honetan hainbat pista eta errepide zatirekin egingo dugu topo, gure helmuga gertu dago eta.

**Km 10,4.- SANTA CRUZ DE CAMPEZO:** Egun on bat igaro eta gero Kanpezura helduko gara. Bertan autobusa egongo da zain bueltako bideari ekiteko.